

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5522

AGINDUA, 2018ko urriaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, farmazia-bulegoen titulartasuna lortzeko merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak izendatzeko dena. Horretarako deialdiak 2018ko maiatzaren 22ko aginduen bidez egin dira.

2018ko maiatzaren 22ko Aginduaren bidez (2018ko ekainaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen), hasiera eman zitzaion farmazia-eremu hauetako lau farmazia-bulego sortzeko prozedurari: Leioa, Durango, Hernani eta Arabako Lautada.

Beraz, eskabidea egin dutenen merezimenduak baloratzeko batzordea osatuko duten kideak izendatu behar dira, EAeko Farmazialarien Kontseiluak, farmazialarien enpresa-elkarteek, eta Farmazialari arduradunen, ondokoen, ordezkoen eta ez-jardunekoen elkarteek egindako proposamenak jaso ondoren. Hala xedatuta dago ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 3. artikuluan (338/1995 Dekretua, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa; otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuaz aldatua).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako pertsona hauek izendatzea 2018ko maiatzaren 22ko aginduen bitartezko deialdietako farmazia-bulegoen titulartasuna eskuratzeko merezimenduak baloratzeko batzordearen kide:

Batzordeburua:

Titularra: Teresa Fernandez de Castro Aguirrezabal.

Ordezkoa: Elena Santesteban Otazu.

1. bokala:

Titularra: Pedro Rivero Rivero.

Ordezkoa: Elena Arteche Aranzamendi.

2. bokala:

Titularra: Susana Urriticoechea Marticorena.

Ordezkoa: Cándida Losa Iglesias.

3. bokala:

Titularra: Monica Martinez Santos.

Ordezkoa: Luis Maria Sagarna Santamaria.

2018ko azaroaren 9a, ostirala

4. bokala:

Titularra: Belen Elorrieta Gabella.

Ordezkoa: Garbiñe Umerez Urbieta.

5. bokala eta idazkaria:

Titularra: Maria Heras Burzaco.

Ordezkoa: Miren Azpiazu García.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 16a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.